

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteez hitz egiten dugunean, gure negozio eredua, hau da, gure enpresa aurrera eramateko beharrezkoak ditugun hornitzaile eta bazkide sareetaz ari gara. Gure enpresa kooperatiba bat izango da, ekonomia, gizarte eta kultura helburuetarako. Borondatezko merkataritza autonomoa izango da. Erakundearen jabetza bazkideena izango da, hau da, gurea, eta bere kudeaketa demokratikoa izango da, bazkideon artean. Bazkide guztiok eskubide eta betebeharrak berdinak izango ditugu eta irabaziak gure artean banatuak izango dira eta gure elkartean inbertituko ditugu.

HORNITZAILEAK

Hornitzaile taldeari dagokionez, talde oso zabala aurkitu dezakegu; baina orokortuz, esan dezakegu, gure proiekturako behar ditugun baliabide eta material desberdinak eskuratzen lagunduko diguten pertsona/enpresak izango direla.

Hiru enpresa edo enpresa kooperatibak osatuko dute gure hornitzaile taldea. Hauei esker, gure kooperatibako eguneroko jarduerarako ditugun beharrak asetuko ditugu; adibidez, gure enpresak behar dituen materialak, lehengaiak, osagaiak, zerbitzuak eta abar.

Gure hornitzaileak: MAKRO, IKEA eta URTXINTXA izango dira.

MAKRO

Makro handizkako salmenta auto zerbitzu denda-kate bat da. Makro-tik, egun bateko irteera batentzako, enpresa honen beharra izaten badugu, familien artean adostasun batera heldu, eta bertara gerturatuko gara janari bila, hau da, bertan behar ditugun elikagaiak lortu ditzakegulako, besteak beste. Elikagaiak lortzeaz gain, bertatik gure enpresa garbitzeko produktuak eskuratu ditzakegu; esaterako, gure elkartea desinfektatzeko, gaur egungo COVID-19 egoeraren garbiketa baldintzak bete ahal izateko. Bestalde, zenbait ekintza konkretu burutzeko, bertan eskaintzen dizkiguten materialak behar zehatz horiek asetzeko ere erabiliko ditugu.

Makro gure hornitzailea izatea erabaki dugu, aurreko den egueraren ondorioz, hau da, COVID-19aren eraginez, gure enpresa desinfektatu behar dugu eta lokalak garbitasun neurriak bete behar ditu. Enpresak eskaintzen dizkigun produktuak baliagarriak izango dira, egoera honek irauten duen heinean, gel-hidroalkolikoa eskuratu ahal izateko edota beste

mota batzuetako garbiketa-produktuak eskuratzeko. Horrez gain, kontuan hartu beharra dago, lokalean izango ditugun bazkide eta familia guztiak, musukoaren erabilera nahitazkoa dela ohartaraziko diegu, baita eskuen garbiketa ere (lokaletik sartzeko eta ateratzeko momentuetan bereziki) eta ahal dugun heinean, segurtasun-tartea errespetatu beharko dugu.

IKEA

IKEA altzari enpresa bat da. Salneurri baxuko altzariak eta etxerako apaingarriak ekoizten ditu. Hauek erosleek montatu edo eraiki ohi dituzte kostua gutxitze aldera. Sektore honetako mundu osoko ekoizlerik handiena da. Enpresa diseinu garaikidearen ikurtzat jo ohi da, baita mundu mailako enpresa prestigiotsu eta berritzaileenetakotzat ere.

Ikea-tik gure altzariak eskuratuko ditugu, Barakaldo-n, Mega Park zentroan duten dendatik. Bestetik gu arduratuko gara altzarien muntaiaz.

URTXINTXA

Urtxintxa elkarteak, jostailu denda bat dauka bere baitan. Durangon dago kokatuta, eta bertatik hainbat jolas-jostailu eskuratuko ditugu. Material didaktikoak eta ekintza desberdinak gauzatzeko materialak Urtxintxa dendan erosiko ditugu.

BAZKIDEAK

Bazkideetaz hitz egiten dugunean, sozietate baten kontratuko zati bakoitza eskuratzen duen pertsonetaz ari gara. Kontratu horren bidez, bazkide bakoitzak kapital jakin baten ekarpena egiteko konpromisoa egiten dio sozietateari, etorkizunean etekin ekonomikoak lortzeko helburuz.

Horretaz gain, negozio jarduera bat garatzeko elkarrekin lan egiten duten norbanakoei ere bazkide deritze, edozein izanik ere sozietatearen izaera juridikoa.

Gure elkarteko bazkideak, gu geu izango gara, eta gure negozio jarduera elkarrekin aurrera eramango dugu. Bakoitzak kapital jakin baten ekarpena egingo du, guztiok kantitate berdina jarriko dugu.

ALIANZAK

Gure enpresak beste enpresa batzuekin aliantzak izango ditu arrazoi hauengatik:

Alde batetik, negozio eredia optimizatzeko, hau da, gure negozioa aurrera eraman ahal izateko. Dauzkagun arriskuak murrizteko, hau da, laguntza behar dugunean, gure hornitzaileetara joko dugu eta honekin batera baliabideak eskuratzeko. Bestalde, euskarri ekonomikoak lortzeko eta zerbitzu desberdinak gure elkartean izateko.

Aliantzei dagokionez, gure elkartean aliatu moduan Durangoko Urtxintxa jolas denda izango dugu eta baita ere Makro, lehen azaldu dugun bezala, behar duguna lortu ahal izateko.